


Y DE PEREIL.



MARTIN ALBISU (Asteasu, 1954) hamalau urterekin afizionatu zen euskaldungoaren pena eta pesadunbreei edota (bariatzekotz) euskarara. Izan ere euskalduna zela jakinki, praile prantzizkotar ezagun baten eskuetarik saiatu zen ikasten -eta haren esku xuabeetarik eskapo egiten gauzak diren ber errate-

koz- enpresa aunitzetan ibilia bikoizketa lanak ere ezagutu ditu eta (Zertako uka?) euskara saltzearenak ere.

Olerki hauek Bilbon bizi izandako azken hiru urteotan eginak dira.

J. M. LARREA



"El invierno es
una circunferencia"

Oteiza

AZAROA

*Azaroa maite dut
neguan barrena egun anonimoak
euri ta lainozko arte ixilak
arima jantziz jantzi grizez
begiok hurrera bilduz, atsedenduz
baitaren barru bideetan.*

*Guregana dauden bide guztiak
desegin bide dira otsailean
laino ta ixiltasunean
antzarrak hegoaldera doaz
gure oroitzapenean.
Dultzea da otsaila: bertan
beti ernetzen gara iraganean*

HITZA

*Hitza
herio-kumea da
ahienaren hurrengoa
bizia den
bake hautsiaren
ikurra, garaipena
munduaren kontra:
bake leku
bete gabean
urradura
mamitzen denean
haizearen zartada
bizitza barru egitean.*

IXILTASUNAREN EREMUAN

*Lur gorrian
bakarrik goaz*

*Gure hitzak
elkarrekin doaz baina ez elkarrengana
gurera datoz baina ez guregana
ahotsa osatzen dute boza ez baina:
ez dute gure kopetan lotsa astintzen
ez gaituzte biltzen, eta itzalak
tente diraute bertaratzen garenean
zimeltzen bait da amodio-lorea
agortzen denean irudimenaren iturria.*

*Semeak gara
erreinu ilunaren.*

AITA GUREA

I

Aita gurea
ez zarena
lurrean,
poliki poliki
egingo zaituguna
gure lanetik
etorriko zarena
edertasunetik

II

Aita gurea
eman diguzuna
harria
euririk gabe,
dolorea bainan ez
malkoa
zure etxean da
ixiltasuna jabea.

III

Aita gurea
begirik eta ahorik
gabea, oraindik
mehea baita
gure boza.
Ilun hau da
zure obra
harri hauen
mirari idorra.

IV

Denboraren baitan
erratua da
zure izena
gure lana da
zure aurpegia
hitzez egindakoa
osatu gabea
oraindik.

V

Jauna,
gau hontan
haizeak dino
zure hotsa
lehioko kristaletan
lur galduan
eraiki genuen
etxean

ARESTIREN BIGARREN HERIOTZEAN

(AITAREN ETXEAN)

Aitaren etxean
habe sendoak
pipiak jota
ikusi nituen

Ederra arbola
indarra ere
izango zuen
euririk balu

Eta ez legoriterik
lur xamurra
eta ez harritzarik.
Non da baratza

Galdetu nuen
hara hor
euskal harria
muturik ez tarria

Gregorio Mujikaren kontra
Pernando Amezketarra,
Iparragirren kontra
Senpelariko Petirena

Lekeitioko Azkueren kontra
Konportako Errotaria
Granada Eizmendiren kontra
Uztapideko Manuel

Eta mundu guziaren kontra
Lasarte. Baina hemen
ez da inor.
Joanak dira bakarka
Iztueta herrenka:

Enara
begirik gabe
plaza
kanturik gabe

Bihotz begietan
lausoa
barne muinetan
zornea

Iluna laiotza
harria bihotza
non da
baratza?



ABIATZEKO POEMA

Ene baitan argia ba da
nire buruaren
ezagueraren
jabe ba naiz
nondik natorren jakinik
nora jo dakidala:
erabakiek hartzen naut
bideek naramate
heurena naiz
errekako ura
urbidearena den bezalaxe

YOYES 2

Hire herriko kaleak
hire oroitzapenean bakarrik
hitunan itzulera bide
urrutitik bakarrik
zabal eta argi:
Itzalak betetzen dizkinate
euriaren lanak
hotzaren kozkak
iraganez eta ohituraz
gogortutako jendeak.

Hextu eta hilunak
jende bezalakoak
negu lubaki
bakarrik abiatzeko
hire herriko kaleak.

IBAIZABAL

Ibaia da hiri honen
edertasun gordea
jainkosa barea
beso indartsu
ta bidea.

Kirastua baina ez gailendua
den edertasunean,
barea baina ez etsia
den indar bizian,
gordea baina ematen diona
hiri osoari zentzua:
edertzen duena
bertako etxe bakoitza
fidatzen dituena
gure pausoak
eragiten dituena
nonnahi
nahiz eta geu
hartaz ez jabetu
hibaia zaina da
gure baitan
da bere erritmoa
lasaia, leguna.



1987- GARRENGO NEGUA, AZAROAN.

Gogorra izan zen 1987 - garrengo negua.
Azaroan, euria ta hotza kolpez
agertu ziren kale guztiak hartuz
kozkaka lehio kristaletan kazka
barra barra erori ziren bertan
harrapatu zituenak bihotz soil bideetan

Eguzkia berriro jabetu baino lehen
harririk harri defendatu zen, hatzaparka
bere lubaki, kale haietan
leporatzen zitzaizun deskuidorik txikienean.
Harrez gero ezer ez zen berdin izan.
Tonbak lur aspirago gorrotoaren

Baratzetan, urrunago gaude maitatzen dugunatik.